

**BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA
SASIETAKO MANKOMUNITATEAREN
HIRI-HONDAKINAK ZABORTEGIETARA ETA
BIOHONDAKIN TRATAMENDU PLANTETARA
GARRAIATZEKO ZERBITZUA
KONTRATATZEKO**

1	LEHIAKETAREN HELBURUA.....	3
2	ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA	3
2.1	ERREFUSA	3
2.2	BIOHONDAKINA.....	5
3	ADJUDIKAZIODUNAK BETE BEHARREKO NAHITAEZKO BALDINTZAK.....	6
4	ZERBITZUAREN EXEKUZIOAN APLIKATU BEHARREKO BESTE FUNTZIONAMENDU-ARAU BATZUK	7
4.1	BALIABIDE MATERIALAK.....	8
4.1.1	BALIABIDE MATERIALEN ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK	9
4.2	LANGILEAK.....	11
4.3	LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA	13
4.4	KONTROL SISTEMAK.....	14
5	GARRAIO-ZERBITZUA EMATEKO MEMORIA TEKNIKOA	15

1 KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen helburua da hiri-hondakinak Sasietako Mankomunitatetik zabortegietara eta tratamendu plantetara garraiatzea, biohondakina eta errefusa desberdinduta. Errefusaren kasuan, hondakinak deuseztatze zentroetaraino garraiatuko dira, horiek Lapatx (Azpeitia), Sasietako (Beasain) zabortegietan eta Zubietako (GHKZ) insatalazioetan baitaude. Modu osagarri gisa, aukera uzten da Gipuzkoa barnean zein kanpoan destinoak finkatzeko. Horretarako, kontratistak bere zerbitzua egokitu beharko du, Baldintza Administratibo Partikularren Agiri honetan eta Ezaugarri Teknikoen Agirian ezarritako baldintzetan.

Biohondakinaren garraioaren kasuan, hondakinak Lapatx (Azpeitia) eta Epeleko (Bergara) konpostatze plantetaraino garraiatuko dira -GHKrenak dira biak-, eta baita Tecnología Industrial de Reciclaje, S.L.k Funesen (Nafarroa) daukan plantaraino, Lapurdiko Itsasun dagoen Loreki plantaraino, eta HTN Biogas-en plantaraino (Caparrosa, Nafarroa), kanpo plantak hirurak, Gipuzkoa barneko zein kanpoko beste edozein tratamendu-puntutaraino bezalaxe, betiere esleitzen diren destinoko tokien arabera. Enpresek egokitu egin beharko dute GHKren beharretara eta izan daitezkeen destino horietara, GHK-k adierazten dienaren arabera, honentzako kostu gehigarririk gabe.

2 ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

2.1 ERREFUSA

Lizitzaileak kontuan izan beharko du Sasietan, momentuz, ez dagoela ohiko transferentziagunerik. Hortaz, behin-behineko espazio bat egokitu da non bajan biltzen duten kamioiek beren zama isurtzen duten.

Momentuz, eta GHK-k bere transferentzia instalazioa eduki arta, Sasietako zerbitzu teknikoak arduratuko dira kontratuaren adjudikaziodunak ematen dituen garraibideak kargatzeaz. Beraz, adjudikaziodunak bere eskaintzan honakoa jaso beharko du bakarrik: trakzio-burua eta kargaren garraibideak, izan ontzi kulunkariak, edo izan errefusaren hondakina garraiatzeko prestatutako oin higikorreko erdiatoi erdi estankoa.

Aurkeztutako eskaintzetan jasota egon arren ere, ontziei zein oin higikorreko erdiatoiei dagokienez, batak zein besteak izan beharko dute bertako langileek edo zabortegikoek erraz erabiltzeko moduko toldoak. Edo, oin higikorreko erdiatoin kasuan, toldorik ez badute, karga-gunea ixteko atea izan beharko dute. Horrela, deskribatutako kargarako edozein baliabide errepidean sartzen denean, garraioen arloan indarrean dagoen legeria beteko du; eta gainera, egun batetik bestera zabortegean geratu behar izanez gero, itxi egin ahal izango da, bolantearekin, bektorearekin eta kaioekin arazoak saihesteko.

Lizitzaileak eskaintzan jaso beharko du, gutxienez, toldodun bi ontzi estanko, edo oin higikorreko erdiatoi erdi estanko bat, material mota hori garraiatzeko egokia

dena; eta, gutxienez, konpromiso-gutun bat izan beharko du, lehenengo erdiatoia matxuratzuz gero, beste bat izan ahal izateko ia berehala. Era berean, eskaintzaren titularrak ere jaso beharko da.

Arrastatzeko, 4x4 trakzio-burua eskaintzea gomendatzen da, Lapatzeko zabortegean edo beste zabortege batzuetan hondakinak isurtzera sartu beharko delako eta, hortaz, beste ibilgailu mota batek arazoak izan litzake deskargatzeko eremuaren barruan dagoenean.

Distantzia nahiko handietan dauden zabortegetara gainerako zatia eramateko aukera dagoela kontuan hartuta, lehiatzaileak 4x4 motako ibilgailuak ez direnak eskaini ahal izango ditu, baina bere gain hartuko du helmugako zabortegean arazoak izateko arriskua, 4x4 motako trakziorik ez badago.

Gainerako zatia uzteko lekuak ondorengoak izango dira:

- Lapatzeko zabortegea (Azpeitia)
- Sasietako zabortegea (Beasain)
- Gipuzkoako Lurraldean dagoen eta aurrekoen desberdina den zabortegea
- Gipuzkoako Lurraldetik kanpo dagoen zabortegea. Kilometro-tarteak eta horiei dagokien eskaintza ekonomikoa definitzeko, hiru kilometro-tarte edo kilometro-arku posible kontuan hartuko dira:

- 1.- Elgoibarko transferentziagunetik 100 km-ra kokatutako helmuga bateraino
- 2.- Elgoibarko transferentziagunetik 200 km-ra kokatutako helmuga bateraino
- 3.- Elgoibarko transferentziagunetik 400 km-ra kokatutako helmuga bateraino

Aplikatu beharreko kilometrajearen desadostasunik izanez gero, GHKren Zerbitzu Teknikoek ahalmena izango dute Sasietako transferentziagunetik destino-punturaino onartutako kilometrajea ezartzeko; eta, ondorioz, esleipendunaren eskaintzan lizitatu eta esleitutako tonako prezioa aplikatuko da.

Kalkuluen arabera, 1400 t ingurukoa izan daiteke hilerro garraiatu beharreko gainerako zatiaren kopurua; hala ere, kopurua alda daiteke, eta esleipendunak ez du aldaketak direla kausa erreklamatzeko eskubiderik izango, ordainketa ekonomiko osagarri eta konpentsagarriei dagokienean. Esleipendunak onartu egingo du gerta daitekeen aldaketa hori.

Materialaren karga Sasietaren kontura egingo da eta Sasietak kargatzeko makinak eta langileak jarriko ditu.

Ordutegia goizekoa izango da; hala bada, beranduenez arratsaldeko 16:00etarako Sasietan, Lapatzeko zabortegean edo esleitzen zaion zabortegean prest dagoen material guztia deskargatuta egon beharko da.

Hileko 30 eguneko zerbitzuak egongo direla kontuan hartuta, eguneko 3 eta 4 bidaiak artean egin daitezkeela kalkulatu da, lehiatzaileak proposatutako zoru mugikorrek erdiatoi motaren arabera.

Materialaren dentsitatea eta 50 bat metro kubikoko edukiera duen ontzi baskulatzaileraren ezaugarriak kontuan hartuta, kargatzeko garraibide

horretarako gutxi gorabehera 13 t gainerako zati karga daitezkeela kalkulatu da. Edonola ere, garraiolariak bere kalkuluak egin beharko ditu, bere eskaintzan proposatu duen kargatzeko garraio bideak baldintzatuta egongo direlarik.

Sasietako palista goizeko 6:30ean has daiteke lanean, eta 13:00ak arte jardungo du. Hortaz, ordutegi horretan, gutxi gorabehera, kargatu beharko dira ekipoak, geroago Lapatzeko zabortegira garraiatzeko.

Sasietako Mankomunitateak aurreikusi du bere jabetzako zabortegian jarduketa bat egitea, hain zuzen ere zabortegi hori iragazgaitzeko eta egokitzeko lanak, eta obren iraupena hilabete batetik bi hilabete artekoa izan daitezkeela jo da; hala ere, gutxi gorabeherako data horrek ez du inongo konpromisorik sortuko lehiaketa honetan.

Betelan bat egiteko, aurreikusita dago Sasietan materialaren beharra sortzen den aldi horretan sartzen den gainerako zatia erabiltzea.

Lehiatzaileak alderdi hori kontuan hartuko du, izan ere, Sasietan betelan hori egiten den bitartean, lehiaketa honen xedea den kontratua BIOHONDAKINAREN garraioari soilik lotuta geratuko baita obrek irauten duten bitartean.

GHK-k kontratistari jakinarazten dionean esleitu dion zabortegian gainerako zatiaren garraioa berriro martxan jarriko dela, kontratista goi-hornidurako zerbitzua ematen hasiko da berriro, aipatutako gainerako zati horren garraioa aldi baterako geldiarazi baino lehen zeuden baldintzetan.

Lehiaketa hau argitaratzen den unean, ez da ezaguna Sasietako Zabortegian betelana noiz egingo den, baina aurreikusten da 2016an egingo dela.

2.2 BIOHONDAKINA

Era berean, eta momentuz transferentziagunerik ez dagoenez, Tolosaldeako eta Sasietako jabegokoak diren bajako kamioi biltzaileek horretarako erabiltzen den gune batetik jasotzen duten biohondakina isurtzen dute Sasietako Zabortegian, eta ondoren, GHK-k esleitzen duen tratamendurako instalazioetara eramaten dute.

Material hori eramateko instalazioak honako hauek izan daitezke:

- Lapatzeko Konpostatze Instalazioa, Azpeitian.
- IB Birziklapen Instalazioa, Funesen, Nafarroan.
- HTN Instalazioa, Caparroson, Nafarroan.
- Epeleko Konpostatze plantara, Bergaran.
- Gipuzkoatik kanpoko tratamendu planta, aipatuetatik bestelakoa.

Honakoak izango dira gutxi gorabeherako ordutegiak:

- Lapatz-Azpeitiara joateko, 08:00etatik 16:00etara, astelehenetik ostiralera, eta 08:00etatik 12:00etara larunbatetan.

- Funesera joateko, garraioak astelehenetik larunbatera egingo dira, jaiegunak barne, 08:00etatik 19:00etara, eta igandeetan, 08:00etatik 14:00etara.
- Caparrosora joateko gutxi gorabeherako ordutegia izango da 08:00etatik 15:00etara astelehenetik ostiralera.
- Epeleko plantara; egokia den unean zehaztuko dira, plantan jarduera hasten denean eta GHK-k kontratistari jakinarazten dionean planta hori biohondakina garraiatzeko helmuga dela, egunak, bidaiak eta ordutegiak ere ezagutzera ematearekin batera.

Uste da hilean, gutxi gorabehera, 700Tn biohondakin mugitu beharko dela tratamendurako instalazioraino.

GHK-k zehaztuko ditu, dagokionean, norako ezberdinak, eta kontratu honen adjudikazioduna norako horietara egokitu beharko da sarrerako ordutegiak edo esleitutako egunak errespetatuz, inolako konpentsazio ekonomikorik edo erreklamaziorik eskatzeko aukerarik gabe.

Sasietatik garraiatzeko balizko egunak astelehenetik igandera arte izango dira, eta adjudikaziodunak une oro bete beharko ditu esleitzen edo jakinarazten zaizkion ordutegiak materiala entregatzeko.

Errefusarekin gertatzen den bezala, Sasieta arduratuko da baita ere lan honetarako kargatzeko pala eta langileak ekartzeaz, eta lizitatzailleak beharrezkoak diren kargarako eta arrasterako baliabideak eskaini beharko ditu, garraioak dagokien norakora eramateko.

Lizitatzailleak ontzi kulunkariak proposatu ditzake, baldin eta toldo irristagarria badute eta estankoak badira. Hondakin mota horretarako, gutxienez, bi ekipo proposatuko ditu. Horrela, dagokion norakora eramaten ari denean garraioa, bigarren ekipoa Sasietan kokatuta egon beharko da, bitartean kargatua izan dadin. Hortaz, Sasietan garraio-talde bat egon beharko da beti, biohondakina lurrean geratzea saihesteko, zabortegian egon daitezkeen klimatologiaren edo kaioen eraginpean.

Kontuan izanik material hori irisgarritasun egokia duten instalazioetan entregatu beharko dela, eta ibili beharreko distantziek behartzen dutela erregaiaren kontsumoa, etab. ondo aztertzea, lizitatzailleak proposatu ahal izango du material honetarako (biohondakinerako) 4x4koak ez diren trakzio-buruak erabiltzea.

Proposatutako ekipo guztien hautaketaz eta garraiatu beharreko hondakin eta norako mota bien ezaugarrietara egokitzeaz lizitatzaillea arduratuko da, zein arduratu beharko den ekipoak aldatzeaz, eskaintzan proposatu duen kargarako eta arrasterako elementuekin arazoak daudela antzemango balitz.

3 ADJUDIKAZIODUNAK BETE BEHARREKO NAHITAEZKO BALDINTZAK.

Kontuan izanik lanean erabiliko duten material organikoaren (biohondakinaren) ezaugarriak, kontratistak, bere eskaintzan aurkeztu beharreko Zerbitzuaren antolaketa-memorian, gehitu beharko du zer modu eta baliabide aurkezten duen honako hauek bermatzeko: alde batetik, biohondakinarekin jarduten duten aipatu oin higikorreko erdiatoiak edo ontziak hustu eta bueltatu baino lehen, aipatu elementuok barrutik eta

kanpotik garbitu daitezen, Sasietan berriz ere kargatuak izateko kolokatu aurretik lixibiatuak eta materialaren hondakinak gabe geratzeko; eta aipatu garbiketak berma dezan Sandach Erregelamenduan eskatutakoa (ikus Europako Parlamentuko eta Europako Kontseiluko 1069/2009 zk.dun (CE) Erregelamendua, eta 2013ko martxoaren 14ko Europako Komisioaren 294/2013 zk.dun (UE) Erregelamendua).

GHK-k esleipendunari taloitegi batzuk emango dizkio, gidariak garbiketa egiten duenean bertan bete beharrekoak. Plantako fakturarekin eta tiketekin batera, egokia den garbiketa-albarana aurkeztu beharko da, plantako deskargari dagokion tiketari grapaz josita.

Garraiatutako materiala isuriko den Tratamendurako Instalazioak garbitegiak ditu aipatu garbiketak bertan egin daitezen. Norakoaren instalazioan hori ezin izango balitz egin, arrazoia edozein delarik ere, lizitatzailak espazio edo toki bat proposatu beharko du aipatu garbiketak dagozkion bermeekin egiteko, zeinak isuri daitezkeen lixibiatuei eta sortutako gainerako hondakinari eragiten dieten, eta aipatu garbiketa egin ahal izateko, egindako garraioan erabilitako oin higigarriko erdiatoiak edo ontziak zerbitzura bueltatu baino lehen. Aipatu garbiketen kostuak adjudikaziodunaren kontura izango dira.

Aurreko baldintzatzaila guztiak kontuan izanik, lizitatzailak honako hauek aurkeztu beharko dituzte, gutxienez, beraien eskaintzetan:

- ☒ Garraiorako ekipoen deskribapena
- ☒ Garraio-sistema, ibilgailuak eta langileak
- ☒ Proposatutako deuseztapen- edo tratamendu-guneetara arteko ibilbideen deskribapena, joan-etorriko bidaia bakoitzerako distantziekin eta denborekin.
- ☒ Sistema bakoitzak deuseztapen- edo tratamendu-guneetan karga- eta deskarga-eragiketetan erabili beharreko denbora.
- ☒ Eguneroko garraio- edo bidaia-kopurua kasu bakoitzerako.
- ☒ Oin higigarrientzako, edukiontzientzako eta garraiorako elementuentzako garbitegia kokatzeko proposamena, eta garbiketa bakoitza, barrutik eta kanpotik, egiteko aurreikusten den denbora.
- ☒ Zerbitzua hobeto deskribatzeko beharrezkoak diren datu guztiak.

4 ZERBITZUAREN EXEKUZIOAN APLIKATU BEHARREKO BESTE FUNTZIONAMENDU-ARAU BATZUK

Garraioaren maiztasuna ezarriko da zabortegeiak edo tratamendurako instalazioak ezarritako ordutegietara egokitu behar direnean bidalketak. Bidalketa horiek egunez edo gauez izan daitezke, eta adjudikaziodunak prest egon beharko da garraioak urteko 365 egunetan egiteko, lehiaketan garraiatutako tona bakoitzeko eskainitako prezioa aldatu gabe.

Helmugako zabortegei edo plantarainoko distantzia Gipuzkoatik kanpo egonez gero eta lekualdatzeko denbora luzea behar izanez gero, esleipendunak zerbitzua indartu beharko du, zerbitzua egiten duten kamioien joan-etorriko denborez konprometituta gera ez dadin.

Zabortegetan eta tratamendurako instalazioetan egin beharreko deskarga norako bakoitzean ezarritako argibideak eta arauak nahitaez betez egingo da. Arau, ordutegi edota egutegi horiek aldatzen badira, kontratistak bere lanak baldintza horietara egokitu beharko ditu, zerbitzua zuzen emateko; eta aldaketa horiek kostu gehiagorik sortuko balute, horien kargua ere kontratistak hartu beharko du.

GHK-k, zerbitzuaren beharrak direla eta, hainbat norako jar ditzake edo hasieran aurreikusitakoak aldatu, eta ondorioz, garraiatutako tonaren prezioa aldatu egin ahal izango du, dagokion kilometrajea aldatzen den neurrian. Era berean, ibili beharreko distantzia motzagoa gertatzen bada, GHK-k zerbitzuaren prezioa aldatu ahal izango luke, proportzioaren irizpide berdina ezarritik.

4.1 BALIABIDE MATERIALAK

Esleipendunak beharrezko baliabide material guztiak jarri beharko ditu zerbitzua behar bezala eskaintzeko.

Zerbitzua gauzatzera bideratutako baliabide materialek une oro ziurtatuko dute horien prestazioa, laneko plana zehatz-mehatz betetzeko eta sor litezkeen gorabeherak konpontzeko adinako tartearekin.

Lizitazailak, beren eskaintzetan zerbitzu desberdinetan zein material mugikor erabiliko duten zehaztu beharko dute, eta argi eta garbi adierazi beharko dute zerbitzua behar bezala emateko beharrezko materiala zein den, baita erreserbako materiala zein den ere, hau da, gehienetan erabiltzen ez den arren, matxurarik badago edo laguntza gehiago behar bada, zerbitzuetakoa ordezkatzeko erabiliko dena.

Erabili beharreko material mugikorra zerbitzuaren eskakizunetara gehien egokitzen dena izango da.

Zerbitzuan erabiliko den material guztia deskribatu beharko dute lizitazailak, horiek ahalik eta hobeto ezagutzeko xedearekin beharrezkotzat jotzen dituzten datu guztiak emanez.

Adjudikaziodunak nahitaez bete beharko du zerbitzu horietara bideratutako material guztiaren mantentze prebentiboaren plana; bertan adierazten dira koipeztatze, azterketa, aldizkako eragiketa eta abarri buruzko jarduerak.

Industriako Lurralde Zuzendaritzaren aldizkako azterketa igaro behar duten ibilgailu guztiek, arinek nahiz astunek, indarrean dagoen araudiak ezartzen duen moduan egingo dute.

KARGARako materiala, esaterako, ONTZIAK eta OIN HIGIGORREKO ERDIATOIAK, lehiaketa honen xede den kontratuaren barne daudenak, kontratatzen diren zerbitzuek erabiliko dituzte bakarrik, eta emakidarenak ez diren zerbitzuetan ezin izango dira erabili, GHK-k berariaz agintzen edo onartzen ez badu.

Adjudikaziodunak obligazioa izango du beharrezko kontserbazio, mantentze eta konponketa lanak antolatzeko eta gauzatzeko, existitzen diren ibilgailu guztien ontziteria zerbitzurako baldintza ezin hobetan egon dadin beti.

Ibilgailuek garbitasun- eta higiene-baldintza zorrotzak bete beharko dituzte beti.

Kontratu honetan erabiltzen diren erdiatoiek edota ontziek, bai errefuserako zein biondakinerako, estankotasun maila perfektua izan beharko dute bermatuta, garraiatzerakoan lixibiatuaren galera saihesteko. Adjudikaziodunak estankotasun hori bermatzeko obligazioa izango du, dagozkion ekipoak hautatuz eta mantentze-lanak eginez, eta agintaritzaren eskumendunak jar ditzakeen zigorrak bere konturakoak izango dira, bai ingurumen-arlokoak, zein trafikokoak, etab. Hortaz, aipatu adjudikaziodunak bere gain hartu beharko ditu sor daitezkeen ondorio ekonomikoak, zein erantzukizun zibilak eta ingurumen-erantzukizunak.

Material teknikoaren zein ekonomikoaren kudeaketa kontratistaren ardurapekoa izango da.

Lizitatuak, beren eskaintzetan, xehetasun osoarekin adierazi beharko dituzte proposatzen dituzten ekipo higikorren mantentze-lanak, beraien irismena eta aldizkakotasuna.

4.1.1 BALIABIDE MATEIALEN ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK

Proposamenek eta eskaintzek honako NAHITAEZKO espezifikazio teknikoak bete beharko dituzte, eta BETETZEN EZ BADIRA eta lizitatuaren eskaintzan SARTZEN EZ BADIRA, lehiaketatik KANPO geratzeko arrazoia izango da.

Proposatutako ekipoek, gehienez ere, 8 urteko antzintasuna izan beharko dute, eta antzintasun hori egiaztatu beharko da lizitatuak aurkeztutako eskaintzari erantsitako dagokion dokumentazioa aurkeztuz, GHKren Zerbitzu Teknikoa balioesteko eta egiaztatzeko.

4.1.1.1 ZARATA MAILA

- Ibilgailuaren dokumentazio teknikoa erantsi behar da, indarrean dagoen Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean zarata-emisioari dagokionez jasotzen den araudia betetzen duela frogatzen duena.

Datu horiek bermatuko dira horretarako egindako neurketa teknikoak eta dagozkion homologazioak jasotzen dituen txosten baten bidez

4.1.1.2 KARGAK ETA NEURRIAK

Garraioei eragiten dieten kargak eta dimentsioek indarrean dagoen legeria errespetatu beharko dute, bide-segurtasuneko, trafikoko, industriako eta laneko arriskuen prebentzioko arauak dagokienez. Kontuan izango da erdiatoiek 4x4 bati lotuta daudenean hartzen duten gairiera, eta multzo osoak izan dezakeen

garaiera maximoa (4 metro), IATn (Ibilgailuen Azterketa Teknikoan) arazoak saihesteko.

4.1.1.3 MOTORRA

Ibilgailuaren fitxa teknikoa, jarraian adieraziko diren ibilgailuaren ezaugarriak ziurtatuko dituena.

- Diesela
- 420 ZP-ko potentzia minimoa
- 1800Nm-ko pare motor minimoa
- **Gutxienez, EURO V araudia betetzea.** Trakzio-buruek derrigor bete beharko dute hori, biohondakina garraiatzeko proposamenen zein errefusaren kasuan.
- Abiaduraren mugagailua

4.1.1.4 ENBRAGEA

Ibilgailuak aldagailu erdiautomatikoko enbragea duela adierazten duen egiaztagiria.

4.1.1.5 TRAKZIOA

4x4ko ibilgailu bat trakzio-bururako eskaintzea gomendetzen da, beharrezko erdiatoiak edo ontziak arrastatzen dituena, Lapatxeko zabortegian arazorik gabe sartu ahal izateko. Gidariak isurketa-gunean deskarga egiteko ardura izango du, ekipoen fabrikatzaileak ematen dituen jarraibide teknikoen eta erabilera jarraibideen arabera. Distantzia luzeak egitea aurreikusten bada, lehiatzaileak 4x4 motakoak ez diren ibilgailuak proposatu ahal izango ditu, bere ardurapean, zabortegien barruan sor daitezkeen zailtasunak bere gain hartuta.

- Biohondakina tratamendu-instalazioetara eramateko, lizitatzailak trakzioa hautatzeko aukera izango du, bere ardurapean.

4.1.1.6 BALAZTA SISTEMA

Ibilgailuak ondokoak dituela ziurtatzen duen agiria:

- Retarder/intarder balazta edo antzekoa
- ABS sistema
- Aurrekoak; haizaturako diskoak edo antzekoa
- Atzekoak; haizaturako diskoak edo antzekoa

4.1.1.7 BESTE NAHITAEZKO BALDINTZA BATZUK

- Maila hirukoitza sarbide ez labaingarriarekin eta argiztapenarekin

- Faro birakari homologatua
- Seinaleztapen triangeluak
- Takografoa
- Hodometroa aginte-mahaian integratua
- Maila-adierazleak
- Altxagarriak
- Beira-jasogailu elektrikoa
- Ixte-sistema zentralizatua
- Ahokatzearen kontrako kita
- Erreminta-kutxa
- Ihesbidea bertikalean isilgailuarekin
- Indar-hartunea abiadura-kaxatik edo banatzailetik atera beharko da.
- Integratutako deflektoreak
- Atoian eramateko kakoa, baita atoian lotzeko beharrezkoak diren instalazio elektrikoak, hidraulikoak etab.
- Gidariarentzako, eta, dagokionean, laguntzailearentzako ikusgai handiko txalekoa.

4.2 LANGILEAK

Xedapen Teknikoen Pleguan eta aurkeztutako eskaintzan deskribatutako gidalerroen eta espezifikazioen arabera, adjudikaziodunak beharrezko langileak izan beharko ditu une oro zerbitzua emateko.

Aipatu langileek ez dute laneko ez beste inolako loturarik izango GHKrekin. Adjudikaziodunak bere gain hartuko du kontratua gauzatzekoan eta bukatzerakoan, garraio-zerbitzu horrek ez jarraitzearen edo, dagokionean, aipatu adjudikaziodunari zerbitzu hori ez berriztatzearen ondorioz sor daitezkeen kostu ekonomikoen eta erantzukizunen ardura. Alegia, Lehiaketa honen xede den kontratua gauzatzekoan erabili dituen langileei dagokienez egon daitezkeen kitapenen eta indemnizazioen ardura hartu beharko du, eta GHKri ezin izango dio inolako kosturik bidali.

Aipatu adjudikaziodunak beharrezko giza baliabideak izan beharko ditu une oro kontratuaren xede den zerbitzua modu eraginkorren gauzatzeko, eta gaixotasunen edo istripuen ondoriozko bajak, baimenak, sindikatuko lanak, oporrak eta beste edozein gertakizun, baita aurreikusi gabeko baja oro eta absentismoa bete beharko ditu. Langilerik ez egotea eta horien bajak berehala bete beharko ditu adjudikaziodunak. Langileen estaldura egiteko, langileek lanpostuaren araberako kualifikazioa eta esperientzia izan beharko dute.

Hortaz, lizitatzailiek beharrezko langileen aurreikuspenaren proposamen bat aurkeztu beharko dute beraien proposamenetan, kontratatutako zerbitzuak modu eraginkorren egiteko, baita langileak ordezkatzeko plan bat ere.

KONTRATUAREN DELEGATUA agertu beharko da zerbitzuburu eta erantzule nagusi bezala. Hark kontratuaren alderdi guztietan erabakiak hartzeko gaitasun nahikoa izango du, eta hondakinen frakzio biak garraiatzeko zerbitzua antolatzeaz eta gainbegiratzeko arduratuko da.

KONTRATUAREN DELEGATUAK mugikorra izango du, eta harreman zuzena mantenduko du GHKren Zerbitzu Teknikoekin. Era berean, lanak errazago kontrolatzeko eta zaintzeko ibilgailua izango du. Era berean, delegatua ez dagoenean (oporrak, bajak, bidaiak, etab.), beste norbaitek ordeztuko du. Horrela, une oro egongo da arduradun tekniko bat kontratatutako lanak koordinatzeko eta kontrolatzeko.

Enpresak ezin izango du DELEGATUA beste pertsona batekin ordeztu, enpresaren antolakuntzan beste ataza edo erantzukizun batzuk behin-behinean edo behin betiko emateko asmoarekin, GHKren Zerbitzu Teknikoaren idatzizko alde zurreko baimenik gabe.

DELEGATUAren garrantzia kontuan izanik, GHK-k eskubidea dauka enpresa adjudikaziodunak lanpostu hori betetzeko aukeratzeko duen pertsona onartzeko edo baztertzeko, eta hori berehala ordezteka eska dezake, uste izango balu kualifikazioa, esperientzia edo egindako lana ez datozela bat bete beharreko lanpostuaren erantzukizunarekin eta helburuekin. Azkeneko kasu horretan, kontratistak obligazioa dauka ordezkari hori gehienez ere hilabeteko epean, jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita, egiteko, adjudikazioaren prezioan inolako aldaketarik sortu gabe.

DELEGATUA zein enpresako zuzendaritzaren ordezkariak parte hartuko dute GHK-k deitzen dituen bilera eta lan-saio guztietara.

Lizitatuak beren eskaintzetan xehetasun osoarekin definituko dute zerbitzu honen atazak zuzen egiteko beharrezko administrazio-ekipo guztia, bere funtzioak eta atribuzio guztiak.

Era berean, lizitatuak organigrama hierarkiko eta funtzional bat aurkeztu beharko dute, non argi eta garbi adieraziko diren giza-baliabideen erantzukizun-mailak, atal honetan aipatu direnak.

GHK-k ez du harreman juridikorik, laneko harremanik edo beste edozein motatako harremanik izango enpresa adjudikaziodunaren langileekin ez kontratuak irauten duen bitartean ez kontratua bukatzen denean. Hortaz, enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira kontratu hau iraungitzerakoan sor daitezkeen obligazio, indemnitazio eta erantzukizun guztiak.

Enpresa adjudikaziodunak Gizarte Segurantzari, lan-istripuei eta PFEZari buruzko laneko obligazio guztiak bete beharko ditu.

Enpresa adjudikaziodunarekin greba edo laneko gatazkaren bat egonez gero, GHK-k eskatuko du GHKren eta adjudikaziodunaren artean hitzartutako gutxienezko zerbitzuak bete daitezkeen, Lan Agintaritzak eskumendunak onartzen baditu. Enpresa adjudikaziodunak horiek betetzen ez baditu, GHK-k adjudikazioduna zigortu ahal izango du, hutssegiteen erregimenaren arabera. Eta kasu horretan ere, GHK-k eskubidea izango du adjudikaziodunarekin duen kontratuaren indarraldia bukatutzat emateko, ez-betetze larriagatik. Kasu horretan, hirugarren enpresen zerbitzuak kontratatu ahal izango ditu garraio- eta hondakin-zatikien distribuzio-zerbitzua bermatzeko, hori baita kontratu honen helburua. Egoera horren ondorioz sortutako kostu guztiak enpresa adjudikaziodunaren kargura joango dira, ezarri beharko liratekeen zigorrekin batera.

Arrazoi teknikoengatik edo langileekin arazoak izanagatik adjudikaziodunak berari esleitutako zerbitzuak betetzeko arazoak izango balitu, GHK enpresak zerbitzua bermatzeko egokiak deritzon bitartekoak kontratatu ahal izango ditu. Horrela, GHK-k kudeatutako aipatu konponbideen kostu guztiak adjudikaziodunak hartuko ditu bere gain.

Kontratuak irauten duen bitartean kontratu honi atxikitako hasierako langileen artean aldaketaren bat gertatuko balitz, arrazoia edozein izanik ere (erretiroa, heriotza, borondatezko baja, kaleratzea, baliaezintasuna...), baita zerbitzuaren beharengatik egindako aldaketa egingo balitz ere, enpresa adjudikaziodunak GHKri alde aurretik eman behar dio horren berri eta bere baimena idatziz eskatu, aldaketa hori gauzatzeko eta sor daitezkeen lanpostu hutsak edo lanpostu berriak betetzeko.

Langile guztiak zehatz-mehatz identifikatuta egon behar dira zerbitzuen segurtasuna bermatzeko, eta identifikazio-sistematik eraginkorra proposatu beharko litzateke.

OHAR GARRANTZITSUA: Lizitatzailerek, eskaintako zerbitzuen zati bat edo zerbitzu guztiak egiteko, beste enpresa batzuen azpikontratazioak jasoko lituzketen eskaintzak aurkeztuko balituzke, eskaintzan zehaztu beharko da, eta adierazi beharko da, zein diren azpikontratutako materialak, langileak, etab., eta zein enpresekin mantenduko litzatekeen kontratu-harremana adjudikaziodunak izanez gero. Eskaintzak adierazi beharko du, baita ere, zein den azpikontratazioaren portzentajea, eta egiaztatu egin beharko da.

Adjudikaziodunak kontratatutako aipatu enpresek bete beharko dute Lehiaketa honetako lizitatzailerek eta adjudikaziodunek nahitaez bete behar dituzten baldintza eta eskakizun guztiak, baita Lan-arloko Legeriari, Laneko Arriskuen Prebentzioari, Gizarte Segurantzari, PFEZari, eta abarri buruzko guztia, eta aipatu kontratak zorrotz betetzeaz arduratuko da adjudikazioduna GHKren aurrean.

4.3 LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA

Enpresa adjudikaziodunak ondoren aipatzen den legerian aurreikusitako obligazio guztiak bete behar ditu, baita lizitazioa, eskaintzen aurkezpena edo kontratuaren exekuzioa egiterakoan indarrean dagoena ere.

- **31/1995 Legea**, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.
- **54/2003 Legea**, abenduaren 12koa, Arriskuen Prebentzioaren arau esparrua aldatzekoa.
- **39/1997 E.D.**, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzekoa.
- **171/2004 E.D.**, urtarrilaren 30ekoa, zeinaren bidez 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen den, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

Ondorioz, enpresa esleipendunaren betebeharrak izango dira:

- Langileen segurtasuna eta osasuna bermatzea.
- Laneko Arriskuen Prebentzioa egitea beharrezkoak diren neurri guztiak hartuz.
- Laneko arriskuak ebaluatzea.

- Prebenzio-ekintza planifikatzea arriskuen ebaluazioaren emaitzetatik abiatuta.
- Lan-baliabideek langileen segurtasuna bermatzen dutela ziurtatzea.
- Langileei, egin behar duten lanera egokitutako babes pertsonalerako bitartekoak ematea, arriskuak ekidin edo behar adina mugatu ezin direnean.
- Langileei informazio egokia ematea dauden arriskuei, aplikagarriak diren babes-neurri eta -jarduerei eta hartutako larrialdi-neurriei buruz.
- Langileei kontsulta egitea eta lan-segurtasunari eta -osasunari eragiten dieten gai guztietan parte har dezaten ahalbidetzea.
- Langile bakoitzak prebentzioaren alorrean prestakuntza egokia jasotzen duela bermatzea.
- Langileak arrisku larri eta hurbil baten aurrean egon daitezkeenean, hori jakinaraztea eta neurriak hartzea.
- Langileen osasunaren aldizkako zaintza medikoa bermatzea.
- Langile bat edo gehiago izendatzea Arrisku Profesionalen Prebentzioaz ardura daitezen, prebentzio zerbitzu bat eratzea edo zerbitzu hori entitate espezializatu batekin ituntzea.
- GHKko prebentzio-zerbitzuei eman beharko diete, alor honi buruz, esleipendunaren betebeharren betetzeari buruzko jarraipen bat egiteko eskatzen zaien dokumentazio guztia.

4.4 KONTROL SISTEMAK

GHK-k zerbitzuaren ikuskaritza eta zaintza funtzioak gauzatuko ditu, eta egokiak deritzon berrikuspenak egin ahal izango ditu edozein unetan eta tokitan. GHK-k eman ahal izango du, egindako ikuskapenaren arabera, agindu eta jarraibide zehatzak, adjudikaziodunak nahitaez bete beharko dituenak.

Lizitatzailleek tresna bizkorrak jarri beharko dituzte, GHK-k eskatutako datu guztiak garaiz eskuratzen lagunduko dutena, egindako lanak justifikatzeko eta kontratatutako zerbitzuari buruz egokiak deritzon kontrolak ondo egin ahal izateko, alegia, proposatutako baliabideak esleitu direla eta eskainitako emaitzak lortu direla egiaztatzeko.

Adjudikaziodunak, gainera, beharrezko baliabideak izango ditu une oro komunikazio-sistema arina eta eraginkorra bermatzeko (telefonoa, mugikorra, posta elektronikoa, etab.).

Hilero, N hilearen lehen astean, adjudikaziodunak hileroko txosten oso eta xehatu bat aurkeztuko du, N-1 hilean egindako jardueraren inguruan, zein honako hauekin osatuko den, gutxienez:

- Garraio-lanak, hain zuzen ere, esleitutako jatorri-puntu batetik ezarritako zabortegira egindakoak.
 - Data
 - Garraio-kopurua
 - Irteera-ordua transferentziagunetik eta deskarga zabortegian
 - Garraio bakoitzeko tona-kopurua
 - Intzidentziak

- Egindako lanen errealitatea hobeto adierazten duten beste edozein daturen gaineko oharak
- Erregaien kontsumoa hilean
- Baliabide higarrien prebentziozko mantentze-lanen prozedurak:
 - Mantentze-lanak egin dizkioten ibilgailuak
 - Egindako lanak
 - IATei buruzko informazioa
- Matxurengatik egindako konponketak
 - Matxuratutako ibilgailua eta matxura mota
 - Ibilgailua zerbitzuz kanpo zenbat denboratan egon den, matrikula zenbakia eta hori ordeztu duen ibilgailuaren datuak.

Hileroko txosten horrekin batera zabortegetan eta tratemendu plantetan egindako sarrera guztietako pisatzeen egiaztagiria erantsiko dira, zeinak nahitaezkoak izango diren fakturak onartzeko.

Edozein kasutan ere, kontratistak emango du GHK-k eskatzen duen zerbitzuari buruzko informazio eta datu guztiak, GHK-k ezartzen duen formatuetan eta maiztasunarekin.

Adjudikaziodunak obligazioa izango du, une oro, GHK-k eskatzen dizkion dokumentu guztiak azaltzeko, bereziki, gizarte-aseguruei, laneko istripuei, aseguru-polizei, eta abarrei buruzkoak.

5 GARRAIO-ZERBITZUA EMATEKO MEMORIA TEKNIKOA

Lizitatuzaileek ZERBITZUA EMATEKO ETA GARRAIOA KUDEATZEKO MEMORIA TEKNIKO bat aurkeztuko dute, non deskribatu behar duten, ahalik eta xehetasun handienarekin, nola emango duten zerbitzu hori, eta justifikatu behar duten aurreikusitako baliabideen eta planifikazioaren egokitzapena zerbitzuaren beharrak betetzeko.

Memoria teknikoak ematen dituen informazioei eta justifikazioei kalterik egin gabe, erabiltzea proposatzen diren baliabideen hautaketaren erantzukizuna hartzen du kontratistak. Hortaz, kontratistak, bere obligazioak ez betetzea edo materialak entregatzerakoan atzerapenak izana justifikatzeko, ezin izango du esan baliabide horiek ez zirela egokiak. Lehiaketaren adjudikazioak ez du esan nahi GHKri aurkeztutako proposamen teknikoak balioesten direnik. Hortaz, kontratistak izango du erantzukizun osoa eta bakarra eskaintako baliabideak egokiak izan daitezen eta ongi jardun dezaten, alegia, kontratistak ziurtatu beharko du GHKri bermatzeko kontratuaren obligazio guztiak osorik betetzen direla.

MEMORIA honek, GUTXIENEZ, honako edukiak izango ditu, zeinak argi eta garbi aurkeztu beharko diren, egoki egituratutako dokumentu batean, eta xehetasun handiko datu teknikoekin, eskemekin, planoekin, xehetasun-zerrendekin, etab., ondorioz, memoria zuzen ebaluatua izan dadin:

- Aurreikusitako giza-baliabideak, kategoria profesionala eta horien funtzioak.
- Aurreikusitako baliabide materialak, makineria barne, tresnak, kontsumagarriak, ordezeko piezen stocka, etab.
- Aurreikuspenak ustekabekoen, matxuren eta antzekoen aurrean, ibilgailuen eta makineriaren prebentziozko mantentze-plan bat barne.
- Lanen dimentsioa, plangintza eta koordinazioa, zeinak koherenteak izan behar diren proposatutako baliabideekin, baita egokiak ere zerbitzuaren beharrak betetzeko, aurreikusitako egutegia eta ordutegiak, zein kontrol-sistemak, eta informazioaren erregistroa eta komunikazioa barne.
- Zerbitzuari eragiten dioten kanpoko baldintzatzaileen inguruko aurreikuspenak (zabortegiaren ordutegiak eta araudiak, edo beste), zeinak koherenteak izan beharko diren zerbitzuaren beharrekin.
- Administrazio Klausula Partikularren Pleguan ezarritakoaren arabera eskaini nahi den beste edozein hobekuntzaren deskribapen argia.

Memoria argia egon behar da, eta horren dimentsioaren eta koordinazioaren alderdi guztiak JUSTIFIKATU behar ditu, zerbitzua zuzen ematen dela ziurtatzeko.

Aurreko baldintzatzaile guztiak kontuan izanik, lizitatzailleek honako hauek aurkeztu beharko dituzte, gutxienez, beraien eskaintzetan, horren dimentsioa aztertu ahal izateko:

- Garraiorako ekipoen deskribapena, honako hauek adieraziz:
 - Pisuak hutsik daudenean (Kg.)
 - Motorra:
 - Marka eta modelo
 - Ezaugarri nagusiak. Pare motorra, etab.
 - Erregaiaren kontsumoa; egiaztagiria erantsi beharko da.
 - Gas-isurketen maila; egiaztagiria erantsi beharko da.
 - Zarata-isurketen maila; egiaztagiria erantsi beharko da.
 - Honako hauen motak eta ezaugarriak: direkzioa, ardatzak, balaztak, gurpilak, etab.
- Kasu bakoitzerako garraio-sistema, ibilgailuak eta langileak
- Kasu bakoitzerako proposatutako deuseztapen- eta tratamendu-guneetaraino eramateko ibilbideen deskribapena, distantziekin eta denborekin.
- Sistema bakoitzak tratamendurako instalazioetan eta deuseztapen-zentro bakoitzean karga- eta deskarga-eragiketetan erabili beharreko denbora.
- Eguneroko garraio- edo bidaia-kopurua kasu bakoitzerako.
- Zerbitzua hobeto deskribatzeko beharrezkoak diren datu guztiak.

Lizitatzailleek beraien eskaintzetan zehaztuko dute emakidarako aurreikusitako langileen antolaketa eta kudeaketa, honako alderdi hauekin:

- Kontratu honen xede diren lanak egiteko behar diren langileak, egindako ikerketen arabera, honako hauek adieraziz:
 - Kualifikazioa
 - Esleitutako lana

- Langileen mota guztietako lanpostu hutsak –ustekabekoak barne– antolatzeko prozedura, zeinak lanpostu hutsa berehala beteko duela ziurtatzeaz gain, egin beharreko lanak ezin hobe ezagutzen dituztela ziurtatzen duen.
- Lan Hitzarmena

Memorian jasoko dira, baita ere, langileak kudeatzeko beste alderdi batzuk, laneko segurtasunari eta higieneari, langileen trebakuntzari, laneko egonkortasunari, eta abarri buruzkoak.

Lizitatzailleak lan batzuk hirugarrenekin hitzartzeko beharra aurreikusten badu, berariaz jasoko du. Horretarako, adieraziko du lankidetzaren irismena, eta azpikontratisten konpromiso-eskutzak jasoko ditu, zeinak onartuko duten lanak gauzatzea Plegu hauetan zehaztutako baldintzetan eta moduetan. Beste edozein azpikontratazio edo azpikontratisten ordezkapenak egiteko, GHKren berariazko baimena beharko da. Ezin izango dira gainditu SPKLTBren 115. artikuluan ezarritako muga

Lizitatzailleak bere eskaintzan zehaztuko du enpresen ekipoak ze langilerekin osatuta dauden, zeinaren azpikontratazioa Pleguan proposatzen den, eta zerbitzu hau ematearekin loturik dagoen. Beraien esperientzia, gaitasun teknikoa eta proiektu honekiko dedikazioa definitu beharko die Plegu hauen lizitatzaillearen langile propioei.